




“Arkitektura postmodernoa idealistagoa zen”

Migel Garairekin solasean



Agurtzane Elguren °

Ibai Gandiaga °

Arkitektura postmodernoa entzun, eta zer datorkizu burura?

Izenik ere ez zait gustatzen. Posmodernitate hitza Amerikatik etorritako terminoa da, Stern bezalako ahotik. Guretzako, ordea, izen horrek ez zuen guk adierazi nahi genuena ondo azaltzen. Gure denboran tendentzia mugimendua deitzen zitzaien, italiarrek asmatutako izendapena. Krier eta besteek, gerora, *Reconstrucción de la ciudad europea* (1) atera zuten, eta beste hainbeste izendapen, postklasizismoa kasu. Postmodernismoa, nire ustez, ahulagoa zen, gu nahiko fundamentalistak baikin, eta nahi genuena hirien egoera aldatzea zen; Mugimendu Modernoaren ondoren hiria nolabaiteko kaos bilakatu zen, eta bilakatu da, izatez. Ikusi bestela garaiko langile auzoak, Altza auzoa, adibidez. Gure xedea hiriarren eraikin tradizionala berpiztea zen.

Garai horretan Donostian antolatutako ziren “Semanas de Arquitectura” jardunaldietan izan zinen? Nola bizi zenuen? Zer dela-eta arkitektura postmodernoa eragin berezia izan zuen Euskal Herrian?

1973an Elkartegoko Kultura Batzordearen erantzukizuna hartu nuen, Linazasorekin batera. Hiru jardunaldi egin genituen, momentuko jende inportantea ekarrita: Aldo Rossi, Giorgio Grassi, Manfredo Tafuri kritikaria, Carlo Aymonino, Sáenz de Oiza, Krier anaiak, Siza ere etorri zen... Benetan arrakastasuak izan ziren eta ikusle mordoa bildu zen bertan; garai haietan, oso harreman gertuak sortu ziren Bizkaiko kideekin, hala nola Iñaki Peña eta Anton Agirregoitia, Rufino eta Perico Basañez...

Bizkaitarrekin hor sortutako erlazioak gerora sendotuko ziren, Julio Caro Barojarekin *La Casa en Navarra* (2) egin genuen garaian hain zuzen ere; bi udatan zehar egon ginen astebetetz Nafarroa bisitatzen, eta bidaiak Bizkaiko kideekin batera antolatu genituen.

Ni Luis Peña Ganchegui arkitektoarekin hasi nintzen lanean. Peña Ganchegui oso arkitekto ona izan bazen ere, ideologia ez zen bere obraren oinarri bat. Arkitektura bere sentsibilitatetik sortzen zen. **Nire ustez arkitektura egiteko ideiak dira beharrezkoak, ideologia jakin bat. Arkitekturak irakatsi behar zuen, ezin zen lasaia izan.**

Estiloen desagerpena izan zen... eta ez bakarrik Estilo Internazionala desagerpena, baizik eta estilo guztiena. Egun gertatzen den bezala, momentuan arkitekto bakoitzak nahi zuena egiten zuen, kaleko edo hiriko estiloari muzin eginez. Baina denok dugu gustuko gure hirien zentroetatik igaro, Bilbo edo Donostia, eta egile anonimoak dituzten eraikinak ikustea. Ez da zertan besteak ez bezalakoa izan, ederra suertatzeko.

Zergatik arkitekto postmodernoak izandakoak, egun ukatzen dute izan izana? Non da arkitektura pentsamendu honen ospe txarra?

Garai horretan historiari jarraitu behar izan genion, eta historia bi ahoko arma da: ezagutzea ona bada ere, ez da hain ona hari jarraitzea, eginez gero bideak moztuko baitzikizu. Konposizio aferekin korapilatuta bukatu dezakezu, eta heldu nahi ez zenuen tokietara heldu.



Nire lehenbiziko lehen hamar urteez oso harro nago, baina ez nago batere harro hurrengo 10 urteez. Estilo horrek itxi egiten ninduela berandu konturatu nintzen, eta konturatu orduko zaila izan zen hortik ateratzea. Oso garai latza izan zen niretzat.

Estiloa, bere momentuan, entzute handikoa izan zen, baina azkenean formalitate batean erori zen; dena zen konposizioa, ordena, simetria. Gaur egun, konposizioa baino, eraikuntza landu behar dela uste dut.

Ordena eta hierarkiari garrantzi handia ematen bagenion ere, ez genuen, inondik inora, ideologia autoritariorik. **Formak monumentalak ziren, baina ez ideologia.** Oso eraso bitxiak jaso genituen. Gogoratzen dut, adibidez, Bruno Zevi-k homosexualitatearen alderatzen zuela estiloa. Edozein kasutan, estilo hau, bere formaren inguruko araukin, lan-sistema itxia bilakatu zen.

Nola laburbilduko zenituzke arkitektura postmodernoren ekarpenak?

Tira, ekarpena, laburbiltzeko, hiria bera da, hiria kalez kale eraikitzea bueltatu. Morfologiaren eta tipologiaren arteko erlazioa, nahi bada; zabalguneko etxeak eta gotikoak ezberdinak dira, eta bakoitza bere tipologia bereziaz eraiki da.



Mendiola etxea, Andoain, Gipuzkoa, Migel Garai, 1978-1979.

Egun natura-arkitektura bat dago, jabetu baikara natura hori zaindu ezean galdu egin dezakegula. Arkitektura, hirian, artifizio bezala ibiltzen zen. Aldo Rossik zioen bezala, arkitekturak berezko legeak zituen, nahiz eta bere baitatik denak jaito ez.

Mugimendu Modernoak garrantzi handiko unea bizi zuen Atenasko Agiriarekin, Le Corbusier-ek egindako bost puntu horiekin. 30 eta 40ko hamarkaden ostean, Espainiak, eta baita Europa osoak ere, gerratearen triskantzak sortutako arazoei egin behar zieten aurre. Ziklo hori bukatzean Smithsonian-tarrek edo Giancarlo di Carlo bezalako kritikari eta arkitektoek **Mugimendu Modernoari kritika zorrotza bota zioten... eta arrazoi osoz! Pentsa Le Corbusierrek Pariseko erdigune osoa eraitsi nahi zuela, zenbait monumentu bakarrik tente utziz! 70eko hamarkada arte, ez zitzaion hiri tradizionalari zegokion baliorik eman.**

Garai horretako zorrotzasun geometrikoaren falta sumatzen al duzu gaur egun?

Bai. Beno, lehen dena zen “bat” eta “zatiek” arteko erlazioa. Egun zatiek bata baina garrantzi handiagoa dute. Lehen, beharbada grekoa deitu zitekeen oreka bat bilatzen zen, osotasunaren eta zatien artekoa, erlazio antropomorfoa; gizaki, arima, gorputza... organo guztien artekoa. Gaur egun ezberdina da, gaur egun organoak apurtu egiten dira, organo gabeko gorputzak daude...

Lehen materialak ez zuen gaur egun duen garrantzirik. Idealistagoa zen arkitektura, eraikuntzak ez zuen baliorik, konposizioak ematen zion balio hori. Orain material berri asko dago, eta betiko materialen obran egikaritzea zeharo ezberdina da.

Arazoa gaur egun hauxe da, nire ustez: dena gauza daitekeelako ustea. Horrek artifizialtasunera garamatza. Gaur egungo irizpide nagusiak jasangarritasunetik etorri beharko luke, eta materialetik beretik. Formak, jada, ahituta daude, materialetik etorriko da aldaketa.


Egia da arkitektura postmodernoaren zigilua inposizio estilistikoa bihurtu zela irakaskuntzan?

Baliteke horrela izatea. Eskolako zenbait irakasle kazetariak dira eta oso informatuta daude estilo ezberdinei buruz. Ondorioz mota guztietako lanak baloratzen zituzten baina ni ez naiz kazetaria eta eskolan nire ideologiarekin bat egiten zuten lanak saritzen nituen. Gaur egun, ordea, ez nago ziur irizpide berdinari jarraituko niokeen.

Eskolan Linazasorok eta nik Luis Peña Ganchegurekin eztabaida gogorak izan genituen arkitekturari buruzko zenbait gauzatan ez ginelako ados jartzen. Peñak zenbait arkitektura klasizista egin zuen.

Gaur egun nire lehen mailako ikasleak izan ziren Kike Muga eta Anton Pagolarekin hitz egingo banu, seguru asko Linazasoro eta biok oso alderdikoi izango ginela esango lukete.

Garai horretatik interesatzen zaizun eraikinen bat aipatzekotan, zein azpimarratuko zenuke?

Moneoren Meridako Arte Erromatarraren Museo Nazionale aipatzekoa da. Arata Isozaki postmodernoa zen baina ez zen oso fededuna, gu fundamentalistagoak ginen. Giorgio Grassik Berlinen eginiko lanak oso ondo daude. Duela urte batzuk Aldo Rossiren Gallarateko Milaneko auzoko etxebizitzak eta Carlo Aymoninoren lanak ikusi nituen eta gustatu zitzaizkidan baina ez dakit gaur egun berriro ikusiko banitu sentsazio berdina izango nukeen. 

Erreferentziak

- (1) KRIER, L. (1980): “The reconstruction of the european city”, *Archives d'Architecture Moderne*, Brusela, xxv-xxxi. [<http://zakuski.math.utsa.edu/krier/reconstruction.html>].
- (2) CARO BAROJA, J. (1982): *La Casa en Navarra*, Caja de Ahorros y Monte de Piedad de Navarra, Iruñea [ISBN 8450052572].